

## Euskal lexiko etnografikoa-ren ikuspegi txiki-labur bat

---

Arratsalde on denoi.

Gerorako utzi gabe esango dut, nere mintzalditxo honetan, ez dudala egingo, inola ere, nere ekintza baten gorespenik, inoiz entzun ohi den bezala; ez arranoak ere!

*Euskal Lexiko Etnografikoarekin* nere aspaldiko nahi bati erantzun txiki bat eman nahi izan diot.

Ekintza mota honetan nerea ez da aurrenekoa, ez dut neure zaletasunik; baina nere urratsen laguntzaile neronen ikerketa lanaren zati bat izan da. Behar bada ibilaldi motza, ez dut neure zaletasunik, baina nere makulukin betea.

Nere lan hau ezin liteke esan oportunitateaz kutsatua dela, ez alajaina!, baizik hitzaldi eta idatzietan behin da berriz agertua.

Adibidez, burdina gai nuela eta, honela mintzatu nintzen orain dela urte batzuk:

«Olak eskutatzea, gauregun gerta oi den beste antzeko gertakizun bat da noski, ta zergatikako berdintsuagatik. Baiñan lantegi aiek kondairara igaro bazi-ren ere, bai beraiekin batera itz ugari aaztu eta bereala galdu, betiko bearbada. Eta gertakizun onek dakar, kezkarik gabe, izkuntza txirotzea, zoritzarrezko egi garratzean».

Gizona, orokor ikusita, ez da bakartia, basamortuan ere –hau bereziki ibilbide antzera ikusi behar dugula ohartuz–, nortasuna elkarrearen barnean agertzen du. Elkarreak berarekin dakar *elkarrizketa hitza*.

Hau idaztean, bat-batean oroitzen naiz Julian Marias-en liburuetakoko baten irakurria, *La felicidad humana* izena daramana, hain zuzen: *Ni* hitza ezin da ulertu *zu* hitzik gabe, dio Mariasek. Eta nik esango dut, *zu* eta *ni* izateak elkarrea berarekin dakarrela, txikia edo aberatsa, baina *elkarrea*.

Gizona gizartea da. Beronen izateak elkartea darama. Azken finean ermitau bakartia ere lege honen baitan aurkitzen da.

Hau ikusirik esan dezagun gizonak bere garaia erantzun egin behar diola. Garaiak beste garaia dakar berarekin, eten gabeko giro aldakorrean, hots, elkarrizketa aldakorrean. Ahaztu ezin dugun *elkarrizketa*, berriro ere.

Gure lan-ospakizunak, gure bizimodua, hitz baten esateko, ez dira gure arbasoen antzekoak, eta ez guk geuk atzo bizitutakoen berdinak ere, eta aldaketa honen mugimenduko gurpil barnean aurkitzen da hizkuntza, gizartearen elkarrizketa aldatzea, berritzea, bizitzaren eboluzioari erantzuna emanez.

Baina berritze hau beti –eta beti hau azpimarratu egiten dut–aberastasuna al dugu? Behin baino gehiagotan, baztertutako hitzen zuloa betetzea besterik ez ote dugu? Galderak dira.

Gauza orokorki ikusita, kreatibitateak, hizkuntza zabalduz, sorketa dakar: eboluzioak berriz, hizkuntza zaharra, berritzea.

Euskal Lexiko Etnografikoa, hiztegia al da? Lexiko aldetik begiratuta baietz esango dut; baina, hori bai, hiztegi berezi bat, etnografi/etnologi alor jakin batzuetan tinkatzen dena. Zabalean baino sakonean gehiago duen lana.

Hitzak berezko gogortasuna du, bakarkiak dakarkion gogortasuna, eta beharrezkoa du kateatzea testu bat lortzeko. Nolako gaia eta nahia, halako idatzia.

Adibidez, Artxiboko txartel edo fitxa baten ezinezkoa dugu Frantziako Iraultza nola eta zer izan zen adieraztea.

Honekin esan nahi dugu *Lexiko* honetan aurkitzen diren hitzak ez direla han-hemenka, bakarka eta bere esanahi zabalaren ezjakinean aurkitutakoak.

Jarrai dezagun.

*Euskal Lexiko Etnografikoa* zazpinatua doa, aurrerako bidearen argigarri. Hitzaurreak, sarrerak eta zazpi zatiek osatzen dute, eta hauen izenburuak hauek dira: Iñauteria; Baserria; Artzantza; Otarregintza, ihizkoa eta zumezkoa; Burdingintza; Ardazketa eta ehungintza; Zurgintza eta Heriotzea.

Nere ekintza honetan, igarotako mundu baten inguruan erabili ziren hitzak biltzen dira, batik bat.

Horrela ba, gaurkotasunean baino gehiago kondairan oinarritzen da. Ahaztutakoa jasoz, eta jasoz gogoratu edo ezagutu, gal ez daitezen. Eta behar bada, behin edo behin, berpiztu egikuntza aldetik.

Hau izan da nere helburua oraingo honetan. Galdu edo baztertu xamar aurkitzen diren hitz batzuk geureganatzea, birjasotzea.

Jarraian ohar gaitezen, atzo, egun eta bihar, gizona etorkizunari begira bizitu dela. Eta oroitu, ez ahaztu, gaur kondaira bezala begiratzen ditugun gizonak eta beraien gertakizun gehienak aurrera begira eginak direla.

Atzoko egunari ezarrita jaiotzen gara, igarotakoaren mundu baten zama dugula, eta ikuspegi honetatik, jakintza arloan, gaztetzen joan beharrean aurkitzen gara, nahita-nahi-ez. Eta biziaren aldaketan era berean aldatzen da hizkuntza.

Esaten nuen bezala da, mundu honetan ezerk ez dio ihes egiten aldaketari, eboluzioari, etorkizunak mugiarazten du gizakia.

«Todo se mueve, fluye, discurre, corre o gira.  
Cambian la mar y el monte, y el ojo que las mira», Machadok dioenez.

Hitzari, testuari eta bere testu inguruari buruzko ohar labur batzuk burutu nahi izan ditut.

Baina ni ez izan filologoa, ordea; gehienez jota ere gramatikarari xume eta ez oso aurreratua izango nintzateke, eta hortaz jabetuta, zuhurtasunak ematen digun eskertu ezinezko laguntzaz baliatu naiz nere interpretazio ekin-tza arloaren barnean.

Eta zenbaitetan horren garesti ordaintzen den zuhurtasun hau, jendetasunaren adierazpen bezala erabiltzen dudan ezker, gogora datorkit zuelako askok ezagutuko duzuen eta zeremoniatako maixu ikasi zen Eliz gizon batek ematen zuen kontseilua. Kontseilu hau hiru arau hauetan bil zitekeen.

Aldaretikan ez irten, meza emailearen hankarik ez zapaldu eta zalantzarik txikienarekin, belaunikatu.

Jarrai dezagun.

Arauaren/tematikaren barruan, irizpide etnografi/etnologiko bati jarraituz, hitzen ordenamendu alfabetikoa zaindu egin dut. Ez dut jarraitu Scarlattiren katu trebe lotsagabearen konportamendu axolagabea, diotenez teklatu gainean paseatuz osatzen bai zuen musika entzun atsegina.

Nere lanean arreta bereziz aztertu ditudan gizar-tearen ezaugarriknabarmenetako bat, bizitzaren alorrik desberdinetan elkar laguntzeko prestutasuna da eta izan da. Har dezagun kontutan, denbora-epe luz batean, bere izaera beretik sortutako instituzio batzuren inguruan bizi izan dela gizadia.

Elkartasuna, biziaren arau eredugarria da. Aintzinako denboretatik honantz, gizarte-bizitza gizadiaren konstantetako bat izan da. Gizarteak batasuna berarekin dakar eta baita ere gizakien arteko laguntza.

Guy Rocher-ek bere *Introducción a la sociología general* izeneko liburuan dioenez: «nortasun kolektiboak ematen dizkio gizarte bati bere ezaugarri berezkoak».

*Euskal Lexiko Etnografikoa* liburura itzuliz: *Galafaixa* (Eskoriatza) eta *gala-paixa* (Bergarako Elosua auzoan) alkartasun-frogak dira; honela ezagutzen bai ziren soroon, ez baratzean, egindako ereinketa-lanen ondorengo afariak.

Nere ekintza barnean esanahi garbiko hitzak aurkitzen dira. Beste batzuk, ordea, bere omonimia edo antzarengatik nahasgarriak izan edo gerta daitezke, eta azalpen bat eskatzen dute. Argitasun hauen beharra, gaurregun erabiltzen ez diren hitzen kasuan haunditu egiten da, eta horietakoak dira *Lexikoa* osatzen duten hitz asko.

*Euskal Lexiko Etnografikoa*-n «uztargilea» hitz honela aipatzen da: «Abe-reak lotzeko erabiltzen diren uztarriak egiten dituen esku-langilea». Hau behin eta berriz errepikatzen da. Baina *uztargilea* dugu ere kanpandorrerako uztarria egiten duen esku-langilea.

Eta hemen adieraziko dut ere *uztargile* bezala ezagutua izan dela ezkongi-lea –casamentero–, gaur egun esango genukeen bezala, bitartekaria, «intermediario».

*Arotz burdina gorritzea* arotz/errementarien entretenimentua izan da. Denborapasa honetan burdina zati txiki bat hotzean hartu eta txingure gainean mailukatuz ea zeinek denbora gutxiagotan gorritu eta zigarroa berarekin piztu, jokatzen zen.

*Arotz burdina gorritzea* joku azkarra eta laburra izan ohi zen; Baigorri-entzutea izan nuenez, minutu batekoa, gutxi gora behera.

*Arotz mailu jokoa*, leku berean jasotako berrien arabera, arotz/errementarien jolasa zen hau ere. Jokalaria tente jarrita, heldulekutik heltzen zuen mailu pixua eta altxatzen saiatzen zen mailuaren buruarekin sudurra ikutu arte.

*Zorroztura* hitzak, besterik gabe, ez digu bere esan nahi aberatsa adierazten.

Nafarroako Arriben *zorrozture*, «Urrekategia» etxeko errementariarekin baserritarrek egiten zuten urteroko tratua izaten zen. Lanabesak zorroztu, gari, babarrun, belar, etabarren truke.

*Belar-onak*. Honekin bakarrik ez dut gauza haundirik adierazten nere *Lexikorako*. Han-hemenka, San Joan goizean bedeinkatzen diren lorebelarrak izen honekin ezagutuak bai dira.

Herri askotan sendagai bezala erabiltzen dira, ekaitzaren aurkako indarra ere badute eta San Joan sugarretan amaitzen dute, sua bedeinkatuz.

Oharterazi nahi dut *Euskal Lexiko Etnografikoan* badirela atal baten baino gehiagoetan azaltzen diren hitzak, dagokien izen buruari erantzunez.


Adibide bezala *zintzarri* hitza. Hitz hau *Iñauterian, Baserria. Artzantzta* eta *Burdingintzan* aurki liteke. Baita ere Eguberrietako ospakizunetan eta mitologi arloan; alargunen baten ezkontzaren berri emaille ziren txantxa kutsuko zintzarri jotzeak edo zenzerradak, ahaztu gabe. Azkeneko gogorapen hauek *Lexikoan* aurkitzen denaren aberasgarri dira.

«(...) el cencerrero, un artista del bronce (...). El son de la esquila había de variar en cada rebaño, y su martillo, al modelar el cencerro, sabía encontrar el matiz con la seguridad de gnomo». Felix Urabayenek egoki asko jasotzen du azalpen hau bere *El Barrio Maldito* liburuan.

*Euskal Lexiko Etnografikoa* nere ikerpen lan zati garbi baten ondorioa da bere osotasunean, salbuespenik gabe, eta ikerpen hitza hemen, hitz honek duen benetako esanahiarekin ulertu behar da.

Lekukoei entzuna, neronek jasoa, neronek bizitua. Hirukote honek hornitu eta osatzen du nere lana. Biharkoari begira ere, hau da nere nahia; bide zahar eta era berean beti berria den ikerketa bideari jarraitzea, orain arteko lanaren aberasgarri.

Besterik ez. Mila esker denoi.



Euskal lexiko etnografikoa-ren ikuspegi txiki-labur bat / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak = Trabajos y actas de la Real Academia de la lengua Vasca = Travaux et actes de l'Académie Royale de la langue Basque*. - Bilbo : Euskaltzaindia = Real Academia de la lengua Vasca = Académie de la langue Basque. - XXXIV , 2 aldia (1989, 1), 157-162 orr.